

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

2611

AGINDUA, 2020ko ekainaren 30ekoa, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuarena, zeinaren bidez, COVID-19ak eragindako egoeraren aurrean, Saltegiak modernizatzeko laguntza-programarako arauak ezarri eta 2020ko ekitaldirako deialdia egiten baita.

2017-2020 aldirako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko Plan Estrategikoan, Jaurlaritzak turismoan, merkataritzan eta kontsumoan sustatu beharreko jardura publikoko arlo lehene-tsiak zehazten dira, betiere XII. Legegintzaldirako gobernu-programan oinarrituta. Izan ere, plan estra-tegiko hori da sailaren politika publikoen plangintza egiteko lanabesa eta administrazio honi arlo horretan dagozkion jarduerak antolatzeko eta koordinatzeko bitarteko egokia.

Barneko merkataritzaren arloari dagokionez, Merkataritzaren Gida Planean jaso bezala, hainbat lan-ardatz zehazten dira, zeinek horietako bakoitzarekin nahi diren helburuen arabera jardun-ildo batzuk dituzten. I. eremu edo ardatzean (Sektorea modernizatzea eta gaztetzea) sartzen da Merkataritza Banaketaren sektoreari laguntzeko agindu honen garapena, 1.3 ekintza-lerroaren barruan (Instalazio berrituak); izan ere, lerro horren helburua honako hau da: gizartearen merkataritzari buruzko irudia eta pertzepzioa eraldatzea, prestigio profesionala ematea, eta haren modernizazioa bultzatu eta laguntzea saltegiak berritu eta modernizatzeko inbertsioa sustatzen duten programen bitartez, bideragarritasun ekonomikoko irizpideekin eta aipatutako planarekiko koherentzia estrategikoa edukita.

Baina, COVID-19 birusaren hedapen bizkorak eragindako osasun-alertak egoera oso aldakorra ekarri dio merkataritza-banaketari. Izan ere, mundu-mailako pandemia gisa kalifikatu da mundu osoan hedatzen ari delako, kutsatutako pertsona kopuru handia dago, eta haren hedapenaren aurkako borroka etengabea da, pertsonen osasunari nabarmen eragiten dion heinean.

COVID-19ak sortu duen krisiari modu koordinatuan aurre egiteko xedez otsailaren 27an sortutako Sailarteko Mahaiaren eta instituzioen arteko foruen bidez, Eusko Jaurlaritza etengabe monitorizatzen ari da egoera, EAEn birusaren hedapena eta eragina mugatzeko neurriak, gomen-dioak eta betebeharrak ezarrita.

Era berean, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila, Merkataritza Zuzendaritzaren bidez, COVID-19ak euskal merkataritza-sektorean sortutako egoera monitorizatzen ari da, merkataritza-enpresen sareak eta elkarte-sareak emandako datuak bilduta, pandemiaren eraginari buruzkoak; informazio horri esker, eraginaren irudi dinamikoagoa eskuratzen da, euskal merkataritza-sektorearen hainbat jardura biltzen dituena.

Gaixotasunaren progresioari eusteko beharrak berekin ekarri du zirkulazio askerako eskubidean aldi baterako mugak ezartzea, eta enpresa-jardura murriztea berrogeialdiko eta gaixotasunari eusteko neurriengatik.

Merkataritza sektorearentzako, neurri horiek ia merkataritza-saltoki guztiak ixtea ekarri dute, 463/2020 EDren 10. artikuluan bildutako kasu espezifikokoak salbu: elikagai, edari eta lehentasuneko produktu eta ondasunen txikizkako merkataria; farmazia, osasun, albaitaritza, optika eta ortopedia arloetako saltoki edo zentroak; higiene-produktuak; prentsa eta paper-dendak; ibilgai-luetarako erregaia; tabako-dendak; ekipo teknologikoak eta komunikabideak; etxe-animalientzako

elikadura; Internet, telefono edo posta bidezko merkataritza; tinategiak eta garbitegiak, eta etxez etxeko ile-apainketako jarduera profesionalak.

Bere aldetik, Eusko Jaurlaritzak, multzo zabalago baten barruan, honako laguntza-ildo hauek ezarri ditu:

a) Premiako laguntza-lerroa, Finantzen Euskal Institutuaren (FEI) enpresentzako eta autonomoentzako maileguz bidez.

b) Laguntzak autonomoentzat eta enpresaburu indibidualentzat, Lanbideren bitartez, Langile Autonomoen Araubide Berezian edo, hala badagokio, Gizarte Segurantzaren edo nahitaezko mutualitate profesionaletan norberaren konturako langile gisa egindako kotizazioak ordaintzeko.

c) Egoera zaurgarrian aurkitzen diren alokairu babestuko euskal parke publikoko maizterrak alokairua ordaintzetik aldi baterako salbustea.

Gainera, hiru lurraldeetako foru-aldundiek fiskalitatearekin lotutako akordioak ezarri dituzte.

COVID-19ak eragindako larrialdiaren esparruan egoera egonkortzeko eta enpresa-sareari, autonomoei eta, oro har, herritarrei laguntzeko neurri horiek, txikizkako merkataritza-sektorean ere aplikatu daitezke.

Esan dugun moduan, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren lehentasuna COVID-19aren hedapena mugatzea eta biztanleen osasuna den, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila kontziente izan behar da krisiak sektorean dituen ondorio eta eraginez; izan ere, enplegu eta ongizatearen iturria da EAEko gizartearentzat.

Larrialdi ekonomikoko egoera honetan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren lehentasun nagusia da euskal txikizkako merkataritza-sektorea babestea eta laguntza eskaintzea, eragina murrizteko, eta, behin osasun-alarma amaitzean, jarduera ohiko egoerara itzultzeko. Helburua da ondorio negatiboak iragankorrak izatea eta behin betiko edo egiturazko inpaktuak saihestea, eskaintzaren beherakadak sortutako istorio amaigabea dela eta.

Aurretik azaldutakoaren ondorioz, komenigarria da jada finkatuta dauden EAEn kokatutako saltegiak modernizatzen laguntzea, agindu honen barruan sartzen den programaren bitartez.

Era berean, eta gaur egungo egoera kontuan hartuz, doikuntzak egiten zaizkio aurreko ekitaldian garatu den Saltegiak modernizatzeko laguntza-programari, baliabideen erabileran efizientzia handitzeko xedearekin.

Agindu hau Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren 2020ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoan inkardinatzen da. Plan Estrategiko hori Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2020ko otsailaren 3ko Aginduaren bidez onartu zen, eta abenduaren 27ko 13/2019 Legean ezarritako aurrekontu-kreditu nahikoa dauka. 13/2019 Legearen bidez onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoaren 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak.

Horrenbestez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— COVID-19ak eragindako egoeraren aurrean, Saltegiak modernizatzeko laguntza-programaren 2020ko ekitaldiko deialdiaren oinarri arautzaileak onartzea, eranskinetan jasotzen den legeaz.

2020ko uztailaren 3a, ostirala

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Oinarri hauetan jasota ez dagoen guztirako, honako arau hauek aplikatuko dira: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua; Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren oinarriko manuak; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioket Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Bi kasuetan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 30a.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua,
SONIA PÉREZ EZQUERRA.

2020ko uztailaren 3a, ostirala

I. ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILEAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

a) Agindu honen xedea da EAEko merkataritzako saltegien modernizazioa sustatzea, berrikuntzaren eta kudeaketa-tresnen eta azpiegituren hobekuntzaren bidez, kontuan hartuta, gainera, COVID-19aren ondorioz deklaraturako alarma-egoerak eragin duen aparteko egoera.

b) Helburu horrekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoko saltegiak mantentzeko helburua duten inbertsio-proiektuak bultzatu nahi dira, horiek berrantolatzeko behar diren ekipamenduak, obra zibila, altzariak, ekipamendu informatikoa eta digitala, bai eta negozioaren segurtasun higieniko-sanitarioa mantentzeko beharrezkoak diren aktibo finkoetako inbertsioak finantzatzuz.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

a) Aurreko artikuluan adierazitako xedea betetzeko baliabide ekonomikoak 1.250.000,00 eurokoak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituetatik hartuko dira.

b) Aurrekontu-ekitaldi bakoitzean eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ez du diru-kopuru horien zenbatekoa gainditzerik izango.

Aipatu laguntzei aurre egin behar dien aurrekontuak ez badu kreditu egoki eta nahikorik lortu nahi den helbururako, laguntzak ukatu egingo dira administrazio-ebazpenaren bitartez.

c) Laguntzen eskaera-espeditenteak era ordenatuan ebatziko dira, agindu honetan eskatutako dokumentazioa espeditentean osatuta geratzen den momentutik aurrera.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Definizioak.

a) Enpresa: jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen edozein erakunde, edozein dela ere bere forma juridikoa.

b) Mikroenpresa, enpresa txiki eta ertaina (ETE): 250 langile baino gutxiagori lana ematen dion enpresa, gehienez ere, 50 milioi euroko urteko negozio-bolumena duena, edo, gehienez ere, 43 milioi euroko urteko balantze orokorra duena.

2.– Negozio-bolumenari dagokionez jarduera nagusia merkataritza duten enpresa ertain eta txikiak –ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak barne– jaso ahal izango dituzte agindu honetan araututako laguntzak. Enpresa horiek berariaz errespetatu beharko dituzte enpresa ertain eta txikien definizioari buruz Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan ezarritako betekizunak edo gomendio hori ordeztzen edo aldatzen duten xedapenak.

Deialdi honetan ezarritakoari dagokionez, merkataritza-jardueratzat hartuko da merkatuaren esku jartzea xede horretarako eskuratutako salgaiak edo produktuak, beren horretan eta eraldaketa-prozesu handirik gabe, baita ekoizleek, artisauek edo industrialek kontsumorako ondasunak

zuzenean saltzea ere, baldin eta ondasun horiek ekoizteko, merkaturatzeko edo hirugarrenei zerbitzuak eskaintzeko prozesuetan sartuko ez diren ondasunak badira.

Agindu honetan arautzen den dirulaguntzarik ez da emango honako talde hauetan sailkatutako jarduera ekonomikoentzat:

– 6521 EJZ epigrafea, Farmaziak: sendagaien eta osasun eta higiene pertsonalerako gaien txikizkako merkataritza.

– 6141 EJZ epigrafea: produktu farmazeutikoen eta sendagaien handizkako merkataritza.

– 6541, 6543 eta 6544 EJZ epigrafeak: lur, aire, ibai eta itsasoko ibilgailuen txikizkako merkataritza. *** Ibilgailuentzako ordezkotako piezen merkataritza diruz lagundu ahalko da.

– 6151 EJZ epigrafea: ibilgailuen, motozikleten, bizikleten eta haien osagarrien handizkako merkataritza. *** Bizikletak eta haien osagarriak diruz lagundu ahalko dira.

– 655 EJZ epigrafea: erregaien eta lubrifikatzaileen txikizkako merkataritza.

Laguntza jaso ahal izateko baldintza izango da, halaber, delako enpresa gutxienez urtebetez jarduera komertzial bera egiten ariua izatea, eskabidea aurkeztzen denetik. Titularra ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda egon beharko da eskaera aurkeztzen duen eguna baino lehen. Azken urtean negoziaren titularra aldatu bada, aurreko titularren EJZ ziurtagiriaren bidez egiaztatatu beharko da enpresaren antzintasuna.

Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztuz gero, eskatzaileak baimena emango dio organo emaileari zuzenean egiazta ditzan Dirulaguntzen Erregelamenduaren 18. eta 19. artikuluetan (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa) aurreikusita dauden egoerak, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari buruzkoak, ziurtagiri telematikoen bidez; kasu horretan, ez dira dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko.

Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez dituzten enpresen proiektuak ez dira diruz lagunduko. Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak bete diren automatikoki egiaztatuko da, laguntza eman aurretik eta ordainketa-proposamena egin aurretik.

Zergak EAEtik kanpo ordaindu arren, Zerga Agentzian kudeatzen dituzten enprekin ere egingo da Ogasunarekiko betebeharrak automatikoki egiaztatzea. Dirulaguntzaren enpresa eskatzaileek tributuoak Nafarroako Ogasunean ordaintzen badituzte, tributuo-betebeharrak betetzearen egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

Ez dira diruz lagunduko zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta dauden erakunde edo enpresak, ezta hartarako ezgaitzen duen legezko debekuren baten eraginpean daudenak ere –esaterako Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13.2 eta 13.3 artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudelako– edo Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikuluan xedatutakoa betetzen ez dutenak.

Era berean, ezingo dira dirulaguntzen onuradun izan armak ekoiztera, merkaturatzera edo finantzatzera dedikatzen direnak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasun Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legeak xedatutakoa betez.

Ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak ezingo dira desegin harik eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolaraueti buruzko Legearen testu bateginaren 44. artikuluan finkatzen den preskripzio-epea igaro arte.

4. artikulua.– Dirulaguntza jaso dezaketen inbertsioak.

1.– Agindu honen ondorioetarako, laguntza jaso dezaketen inbertsiotzat hartuko dira enpresaren aktiboan txertatzen direnak eta diruz lagundutako saltegian bertan daudenak, hau da, salmenta gauzatzen den saltegian edo haren eranskinetan daudenak eta destino-kategoria hauetako bati egokitzen direnak:

a) Lokala, altzariak eta merkataritza-jarduera gauzatzeko behar diren ekipamenduak eta haien osagaiak, barnekoak zein kanpokoak –behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak direnak- berrantolatze eta modernizatzeko inbertsioak, gaur egungo egoera kontuan hartuta.

Besteak beste merkataritza-alorreko enpresa txiki eta ertainek merkataritza-gune itxi batean partekatutako espazio eta elementu komunak berrantolatze eta modernizatzeko inbertsioak, hala nola korridoreak, instalazio teknikoak, estalkiak, kanpoko etxaurreak, zerbitzuak eta sarbideak berrantolatze eta modernizatzekoak, betiere espazio eta elementu horiek saltegien titularrek berek jabekide-erkidegoko erregimenean kudeatuak badira.

Zentroan bildutako saltegien jabe bakoitzak, jabekide-erkidegoaren partaide, esandako espazio edo elementu komunean egiten diren inbertsioetatik, bere partaidetzari dagokion gastuen zatigatik eskatu ahal izango du laguntza.

b) Salgaien baskula elektronikoak, ekipamendu informatikoak, horietarako aplikazioak eta osagarriak –betiere merkaturatze-prozesuetan txertatuta badaude edota enpresa-kudeaketarako badira– online salmenta eskaintzen duten web-orriak sortzea eta ezartzea, eta saltegiaren web-orria gailu mugikorretara egokitzea.

Ekipo informatikoetako inbertsioa mugatu egingo da, eta, gehienez ere, saltegi bakoitzari ekipu informatiko oso batengatik eta periferiko mota bakoitzarengatik emango zaio dirulaguntza.

c) COVID-19ak eragindako alarma-egoera dela-eta, merkataritza-jarduera baldintza higieniko-sanitario egokietan garatzeko erositako aktibo finkoetan egindako inbertsioak: lurruneztagailuak, airea berritzeko eta arazteko sistemak, termometro digitalak, gorputzeko tenperatura neurtzeko kamerak, esterilizagailuak, deskontaminatzeko alfonbrak, etab. (ez dira kontuan hartuko material hauetan egindako gastuak: higiene-maskarak, eskularruak, erabili eta botatzeko mantalak, etab.).

Nolanahi ere, erosten lagundu beharreko aktibo horiek zuzenean egon behar dute merkataritza-jarduerarekin lotuta eta enpresa berritzera eta modernizatzera, merkaturatze-teknikak hobetzera edo banaketa-kostua murriztera bideratuak behar dute izan, gaur egungo egoera kontuan hartuta.

2.– Proiektuak diruz lagundu ahal izateko, onartutako gutxieneko inbertsio hauek egin beharko dira saltegi bakoitzeko.

– 4.000 euro, aurreko puntuko a) apartatuan jasotako kasuetarako.

– 900 euro, aurreko puntuko b) apartatuan jasotako kasuetarako.

– 900 euro, aurreko puntuko c) apartatuan jasotako kasuetarako.

Inbertsioak hiru kategoriatan egiten badira, onartutako gutxieneko inbertsioa egiten den kategorietako inbertsioak bakarrik lagundu ahalko dira diruz.

3.– Aktiboak diruz lagundu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Lehenengo aldiz erabiliak edo abian jarriak izan beharko dira.

b) Gutxienez bi urtez iraun beharko dute enpresaren aktiboan, fakturaren datatik kontatzen hasita. Kanpoan geratzen dira 1 puntuko c) apartatuari dagozkion aktiboak, horiek gutxienez urtebetez iraun beharko baitute.

c) Ezin izango zaizkie hirugarren pertsona fisiko zein juridikoei laga.

d) Ez dira enpresa eskatzaileak berak fabrikatuak, eginak edo garatuak izango.

e) Laguntza jasotzen duten inbertsio-proiektuek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldeen barruan kokatuta egon behar dute.

f) Dirulaguntzak kalkulatzeko, 2019ko uztailaren 2tik hasi eta deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunera arte egindako inbertsioak onartuko dira.

4.– Ez da diruz lagunduko:

– Luminariak aldatzea, instalazio elektrikoa berritzeko inbertsioaren barruan sartuta ez badago aldaketa hori egitea.

– Telefono mugikorrak.

– Osasun-zerbitzuetako edo zerbitzu profesionaletako makineria espezifikokoak.

– Merkataritza-lokalak erostea.

– Garraio-baliabideak erostea.

– Ekipamendua leasing edo renting bidez erostea.

– Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) eta, oro har, zerga, tasa edo kontribuzio mota guztiak.

5. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidez gauzatu dira.

2.– Agindu honetan zehaztutako inbertsioek inbertsio onargarriaren % 16ko dirulaguntza jasoko dute 4. artikuluko 1.a) eta 1.b) puntuetan adierazitakoentzat, eta inbertsio onargarriaren % 30ekoa 4. artikuluko 1.c) puntuan aurreikusitakoentzat, dirulaguntza jasotzeko gutxieneko zenbatekoak beteta, betiere.

Dirulaguntza, gehienez ere, 9.000 eurokoa izango da saltegiko eta urteko.

3.– Onar daitezkeen aurreko inbertsio-ehunekoak handitu egingo dira, baldin eta saltegiak hauetako baldintzaren bat egiaztatzen badu:

a) 2 puntu gehiago, 175001 UNE ziurtagiria, bitarteko bikaintasun-ziurtagiriak edo, azken bost urteetan, Saltokitik Enpresara programan parte hartzearen ziurtagiria badute.

b) 2 puntu gehiago, baldin eta eskaera-egunean merkataritzako eskualde- zein lanbide-elkarteen batekiko lotura duela egiaztatzen bada, lotura hori saltegian egiten den inbertsioak han irauten duen denbora bestekoa ego gehiagokoa izanik, 5.3.b) artikuluan xedatu bezala.

Horri dagokionez, saltegia Euskal Herriko Merkataritza Ganberetan berariaz sortutako Erregistroan inskribatutako erakunderen bateko kide baldin bada ulertuko da merkatarien elkarte bateko kide dela (erregistro hori ekainaren 17ko 148/1997 Dekretuari zor zaio, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Elkarteen Errolda sortu baitzuen).

c) 2 puntu gehiago, inbertsioa kudeaketa-softwarean edo on-line salmenta eskaintzen duten web-orrietan egiten bada.

d) 2 puntu gehiago, laguntza eskatzen duen saltegiaren nagusiak edo gutxienez hango langile batek hezkuntza arautuko tituluren bat –Lanbide Heziketako erdi mailako zein goi-mailako tituluak– edo Lanbidek emandako profesionaltasun-ziurtagiriren bat baduela egiaztatuz gero, tituluak merkataritzarekin zuzeneko loturaren bat bada betiere.

Tituluek eta ziurtagiriek merkataritzarekin zuzeneko lotura dutela ulertuko da baldin eta haien helburua saltegiaren enpresa-kudeaketa bada –erosketak, salmentak, bezeroaren arreta, biltegi-kudeaketa, marketina...– edota lanpostua hobeto garatzea, betiere laguntza eskatzen duen saltokiaren jardura komertzialaren arabera.

Saltegiaren titularrak edo langileek merkataritza-jardura gauzatzeko ezinbesteko diren tituluak edo ziurtagiriak ez dira aintzat hartuko.

e) 3 puntu gehiago, laguntza eskatu duen saltegiaren enpresako langileen erdiek gutxienez kontratu mugagabea dutela egiaztatzen bada.

f) 3 puntu gehiago, Berdintasun-plana edo lan-bizitza eta familia bateragarri egiteko plana badauka, edo Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuneko Laguntza Erakunde izendatuta badago; izendapena Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak edo beste edozein administrazio publikok eginda.

g) 2 puntu gehiago, enpresa Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikita badago.

h) 2 puntu gehiago, saltegiaren enpresaburuak Berriz Enpresa enpresa-transmisioa bermatzeko programan edo erakunde publikoek zein pribatuek enpresa-transmisioa bermatzeko garatutako beste programaren batean parte hartu izanaren egiaztagiria izanez gero. Eusko Jaurlaritzan merkataritza-arloan eskumena duen sailak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganberak elkarlanean garatutako programa da Berriz Enpresa.

Azken kasu horretan, saltegia kokatuta dagoen lurraldeko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberaren egiaztagiri bat beharko da, non egiaztatuko baita saltegia jabez aldatzeko prozesuak enpresa-transmisiozat hartzeko baldintzak eta helburuak betetzen dituela.

Laguntza horren portzentajea enpresa eskualdatzeko proiekturako eskaera aurkezten den lehenengo aldi bakoitzeko ezin izango da handitu.

i) 2 puntu gehiago, merkataritza-enpresa itxita egon bada, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko alarma-egoera dela eta.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da inola ere izan inbertsio onartu totalaren % 40 baino handiagoa.

6. artikulua.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan xedatutako laguntzek honako hauek beteko dituzte: Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 Erregelamenduan (EE) ezarritako minimis arauak (Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoak), eta Europar Batasunean gai horri buruz ezarritako bestelako xedapenak edo jarraibideak.

2.– Agindu honetan araututako laguntzen babesa jasotzen duten enpresen inbertsio-proiektuek ezingo dute beste laguntzarik jaso, edozein dela ere beste laguntza horien izaera eta eman dituen organo edo administrazioa, baldin eta, agindu honetatik eratorritako laguntzei metatuta, agindu honen bidez diruz lagundutako inbertsio-proiektuaren kostua gainditzen badute.

3.– Agindu honetan xedatutakoan oinarriturik emandako laguntzetatik zuzenean kentzekoak izango dira beste organo edo administrazioek emandakoak, baldin eta diruz laguntzeko aktiboei dagokienez helburu bera badute, betiere aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko mugetara iritsiz gero.

II. KAPITULUA

PROZEDURA

7. artikulua.– Eskabideak eta dokumentazioa.

1.– Agindu honetatik eratorritako eskabide, eskaera, jakinarazpen eta gainerako izapide guztiak elektronikoki gauzatuko dira, honako xedapen hauen arabera: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikulua eta Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendariaren 2006ko otsailaren 9ko Ebazpena, E-Administrazioarako Plataforma teknologikoa ezartzen duen dokumentua onartzen duena.

Eskabidea eskatu eta betetzea egoitza elektronikoen bidez soilik egin daiteke: <http://www.euskadi.eus/servicios/1010107> helbidean, webgune horretan kokatutako funtzionalitateen bitartez, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Bide elektronikotik izapideak egiteari buruzko zehaztapenak, eta eskabide-eredua bera, eskura daude aipatutako egoitza elektronikoen. Era berean, eredu horien edukiak II. eranskinean daude jasota.

Elektronikoki gauzatutako eskabidearen osteko izapideak, jakinarazpenak eta espedientearen kontsulta barne, EAeko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta»ren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

Eskabidearekin batera, erakunde eskatzailea ordezkatzeko gaitasun legala duen pertsona edo erakundearen sinadura elektronikoa ez ezik, harekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen xedatutakoaren arabera Administrazioak eska ditzakeenak aurkeztu beharko dira.

EAeko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen onartutako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

Baldin eta enpresa titularrak ordezkari bidez jardun nahi badu, ordezkaritza beste pertsona bati eman ahal izango dio, haren izenean bete dezan izapidetze elektronikoa. Horretarako, ordezkaritza Eusko Jaurlearitzako Ordezkarien Erregistroan inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

Hala badagokio, eskabidearekin batera lege-ordezkaritza emateko inprimaki arautua aurkeztu ahal izango du. Azken hori hemen dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaur-larritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>

Ordezkaririk (fisikoa zein juridikoa) identifikatzeko bitarteko elektronikoa onartu bat eduki beharko du.

2.– Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango dituzte laguntza-eskabidea eta eskatutako dokumentazioa. Ildo horretatik, eskatzaile bakoitzak hautatutako hizkuntza erabiliko da eskabidea aurkeztu ondoko jardueretan, prozedurak irauten duen bitartean, Euskara-ren Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearekin bat etorriz.

3.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Enpresa eskatzaileek berariaz horretarako prestatu diren eskabide-eredua eta inprimakiak bete beharko dituzte. Horiekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, alderdi hauek zehaztuta:

a) Deialdi honetan ezarritako eskakizunak betetzen dituela.

b) Pertsona edo erakundea ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak onuradun izateko 13. artikuluan ezartzen dituen debeku-egoeretan.

c) Hala badagokio, Kontsumobideren arbitraje-sistemara atxikita dagoela (www.kontsumobide.euskadi.eus).

d) Enpresa txiki edo ertaintzat (ETE) hartzeko behar diren baldintzak betetzen dituela:

– 250 pertsonari baino gutxiagori lana ematea eta aurreko ekitaldiko abenduaren 31n gehienez ere 50 milioi euroko urteko negozio-bolumena edukitzea, edo, gehienez ere, 43 milioi euroko urteko balantze orokorra izatea.

– 250 langile edo gehiago, 50 milioi eurotik gorako negozio-bolumena eta 43 milioi euro baino gehiagoko balantze orokorra duen enpresa batek haren kapitalaren % 25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea.

e) Ez dituela armak ekoizten, merkaturatzen edo finantzatzen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasun Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legeak xedatutakoa betez.

f) Laguntzaren portzentajea handitzeko, titulazioa, ziurtapena edo kontratazio mugagabea egiaztatu duten langileek lan-lotura dutela laguntza eskatzen duen saltegiarekin.

g) Ez daukala dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penal edo administratibo irmorik, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

h) Ez daukala inolako itzultze- edo zehatze-prozedurarik abian, ez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak ez haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan.

i) Inbertsio hori bera egiteko beste erakunde publiko zein pribatu batzuetatik jasotako edo haiei eskatutako laguntzak.

j) Azken hiru urteetan enpresak jaso dituen «minimis» laguntzak.

k) Ez dagoela zigortuta dirulaguntzen edo laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin (Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50. artikulua).

l) Betetzen duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa.

m) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 2.3 artikuluan ezarritako betebeharrak onartzeko konpromisoa hartzen duela.

n) Emakumeen eta Gizonen Aukera Berdintasuneko erakunde laguntzaile gisa ageri dela Emakunden.

o) Hala bada, saltegia itxita egon dela adieraztea.

Eskabidean jasotako datuak espedientearen tramitazioaren edozein unetan egiaztatu ahal izango dira.

Goian aipatutako erantzukizunpeko adierazpenean agertzen den daturen bat faltsua izanez gero, administrazio- zein zigor-araubidearen arabera dagokion zehapena jasoko du.

Eskabide bakarra aurkeztuko da saltegi bakoitzeko.

Enpresa batek hainbat saltegitan egiten baditu inbertsioak, eskabidea egiteko aurkeztu behar den dokumentazio komuna lehenengo eskabidean bakarrik aurkeztu beharko du, ez eskabide guztietan.

5.– Enpresa eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera:

a) Pertsona fisikoa bada, enpresaren titularraren NANA edo Turismo eta Merkataritza Sailari baimena ematea datu hori egiazta dezan interoperabilitate-zerbitzuaren bitartez.

b) Enpresaren IFK (pertsona juridikoa bada).

c) Enpresaren eratze-eskriurak eta horretan egindako aldaketak.

d) Ordezkaritza emanez gero, pertsona edo erakunde eskatzailearen lege-ordezkaritzaren ahalordea.

e) Baldin eta ez badute ordezkaritarik eman eta ez badute Ordezkarien Erregistro Elektronikoa erabili nahi, ordezkaritza emateko inprimaki arautua erantsi beharra egongo da (<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>), eta, horrekin batera, ordezkatuaren egiaztagiria (NANA pertsona fisikoa bada, eta ahalordetze-eskriurak pertsona juridikoa bada).

f) Ekonomia-jardueren gaineko Zergan izandako alta eta baja egoeren ziurtagiri historikoa, edo, hala badagokio, dirulaguntza jasoko duen saltegiarena.

g) Behar izanez gero, merkatarri-elkarteren bateko kide izatearen jatorrizko ziurtagiria.

h) Enpresak lortutako kalitate- edo bikaintasun-ziurtagiriak, halakorik izanez gero.

i) Merkataritza-sektorearekin zuzeneko zerikusia duten unibertsitateko edo lanbide heziketako titulua edo profesionaltasun-ziurtagiria.

j) Alta emanda dauden langileen inguruko txostena, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emana, enpresarekin lan-lotura dutela egiaztatzeko.

k) Berdintasun-plana edo Lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko plana dagoela egiaztatzea.

l) Eskabidearen xede den inbertsio-proiektuan sartutako aktiboen fakturak eta ordainketa-agiriak.

Diruz lagun daitezkeen aktiboen deskribapena ondo identifikatuta ditzuten fakturak bakarrik onartuko dira –ez dira onartuko kontzeptu kodetuak–. Gainera, faktura horiek, BEZik gabe, 100 euro edo gehiagokoak izan beharko dira.

2.500 eurotik gorako ordainketak banku-transferentzia, banku-ziurtagiri nahiz ordain-estraktuen bidez justifikatuko dira. Ordaintzailea eta ordainketa jaso duena argi eta garbi identifikatuta azaldu beharko dira dokumentu horietan.

m) Saltegia kokatuta dagoen lurralde historikoko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberaren egiaztagiria, baldin eta 5.3.h) artikuluan aipatzen den enpresa-transmisioko programara atxiki bada.

n) Erakunde eskatzailearen «Hirugarren Interesdunaren alta-agiria». Dirulaguntza ordaintzeko, informazio hori eman beharko dute. Telematikoki izapidetu daiteke (izapidetze elektronikora behartuta dauden pertsonak hala egin beharko dute) dagokion zerbitzuaren bidez, baita egoitza elektronikoa ere, zeinaren helbidea honako hau baita: <https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/>

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari laguntzak eskatu dizkioten enpresen indarreko agiriak aurkeztu beharrik ez da egongo. Eskatzaileak dokumentazio hori dagoeneko aurkeztu baldin badu, eskabidean adierazi beharko du zer espediente-zenbakirekin, zer egunetan eta zer organo edo bulegotan aurkeztu zuen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikuluko 3. apartatuan ezarritako betekizunekin eta zehaztapenekin bat etorritz.

6.– Ondasun-erkidegoei eta sozietate zibilei dagokienez, eskabidean berariaz jaso behar dituzte taldeko kide bakoitzak hartutako gauzatze-konpromisoak, eta taldearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko aski ahal duena.

8. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren lurralde-ordezkaritzak aurkeztutako eskabidean akatsen bat edo zehaztasun faltaren bat ikusten badu, enpresa eskatzaileei jakinaraziko die, eta hamar eguneko epea emango akatsa zuzentzeko; halaber, jakinaraziko die agindutakoa ez betetzeak eskabidea bertan behera utzi dutela esan nahiko duela, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. eta 68. artikuluetan ezarritakoarekin.

9. artikulua.– Eskabideak aztertu eta ebaluatzea.

– Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren lurralde-ordezkaritzari –inbertsioa egingo edo jarduera gauzatuko deneko lurraldearen arabera– dagokio aurkezten diren eskabideak aztertu eta ebaluatzea. Eskabide horiek ondo ulertu eta ebaluatzeko, beharrezko irizten dien argibide eta agiri osagarri guztiak eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari.

– Eskabideak aztertu eta ebaluatu ondoren, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Merkataritza zuzendariari, berariaz adieraziz eskatutako dirulaguntza ematea onartzen den ala ukatzen den. Onartzearen alde eginez gero, onartutako inbertsioaren eta laguntzaren zenbatekoak adieraziko ditu.

10. artikulua.– Dirulaguntza ebaztea eta ordaintzea.

1.– Merkataritzako zuzendariak, aurreko artikuluan esandako proposamena ikusita, eskabideak ebatziko ditu, espedientea osatuta dagoen unearen arabera ordenari jarraituz.

Ebazpen hori 6 hilabeteko epean eman eta enpresari jakinarazi beharko zaio, espedientea oso-rik dagoen unetik aurrera, betiere agindu honen 2.4 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.– Jakinarazpen elektronikoak EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

3.– Enpresa eskatzaileei dirulaguntzak emateko ebazpenak banan-banan jakinarazteaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira enpresa onuradunen zerrenda eta emandako dirulaguntzen zenbatekoa, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren (Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen idazkera eraber-ritua onartzen duen dekretua) 49.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

4.– Ebazpen horrek ez du administrazio-bidea amaituko, eta, haren aurka, gora jotzeko erre-kurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Merkataritza eta Turismo sailburuordeari, urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako epean eta moduan.

5.– Ebazpena emateko epea amaitu eta interesdunari ezer jakinarazi ez bazaio, eskatutako laguntza onetsi egin dela esan nahiko du, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24. artikuluan agindutakoarekin.

6.– Betiere, onartutako dirulaguntza zehaztuko du ematen den ebazpenak, eta agindu honen 12.1 artikuluan jarritako epea igarotakoan ordaindu egingo da.

7.– Agindu honek arautzen dituen laguntzak erakunde onuradunei eman eta, hala badagokio, ordaindu aurretik, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzulketa- edo zehapen-prozedura amaitzea.

8.– Ekonomia-jardueren gaineko Zergan alta emanda dauden pertsona fisikoek, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren (PFEZ) araudiak, lanbide-jardueraren lehen ekitaldietako atxikipenetan tasa murriztua aplikatzeko ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten lanbide-jar-duerari dagozkien epigrafeetan alta emanda daudenek, dagokion eskabidea behar bezala beteta aurkeztu beharko dute (III. eranskina).

11. artikulua.– Laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Merkataritzaren gaineko eskumena duen zuzendaritzari dagokio agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea, agindu honetan bertan beste organo batzuei berariaz izenda-tzen zaizkien gaietan izan ezik.

12. artikulua.– Enpresa onuradunen betebeharrak.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua– eta Dirulaguntzei buruzko aza-roaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 14. artikuluan ezarritako betebeharez gain, honako hauek ere bete beharko dituzte agindu honetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradunek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Enpresa onuradunak dirulaguntza eman zaiola jakinarazteko agiria jasotzen duenetik hamabost egun igarotakoan, enpresak berariaz eta idatziz dirulaguntzari uko egiten ez badio, dirulaguntza onartu duela ulertuko da.

- b) Dirulaguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko da, ez beste ezertarako.
- c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren eginkizunen barruan deialdi honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen duten informazio guztia ematea.
- d) Helburu berdinarekin edo antzekoarekin beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatutatik dirulaguntza, diru-sarrerak edo baliabideak jasoz gero, horren berri ematea.
- e) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera objektibo nahiz subjektibo aldatzen bada, Merkataritza Zuzendaritzari jakinaraztea.
- f) Era berean, pertsona fisikoek zein juridikoek dirulaguntzaren erakunde onuradunarekiko harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko duten eskubidea bermatuko da.
- g) Jasotako funtsak aplikatu direla egiaztatzen duten dokumentuak eta fakturak gordetzea, baita dokumentazio elektronikoa ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak horiek egiaztatzeko eta kontrolatzeko aukera izan dezan, gutxienez 4 urteko denbora-tartean, diruz lagundutako jardueraren azken justifikazioa egin eta hurrengo egunetik aurrera.
- h) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzea, eta aipatutako 4/2005 Legeak administrazioarekin kontratuak egiten dituzten enpresei ezartzen dizkien betebeharrak beren gain hartzea.

13. artikulua.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan egindako aldaketa orok dirulaguntza hori emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, betiere dirulaguntzaren onuradun izateko deialdi honetan ezarritako gutxienerako eskakizunak betetzen badira.

Ondorio horietarako, Merkataritza Zuzendaritzak dagokiona aldatzeko ebazpena emango du, non emandako dirulaguntzen zenbatekoak doituko baitira.

14. artikulua.– Ikuskaritza.

Diruz lagundutako proiektuak aurrera nola doazen eta nola ari diren garatzen ikusteko, egoki deritzen ikuskatze eta egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, eta eskatzen dizkien argibide osagarri guztiak eman beharko dizkiote enpresa onuradunek. Fakturretan jasotako inbertsioak saltegian egindakoei dagozkiela egiaztatu beharko du funtsean ikuskapenak.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

a) Enpresa onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53. artikuluan edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean badago, Merkataritzako zuzendariak, ez-betetzeari buruzko espedientea egin ondoren –non erakunde interesdunari entzungo zaion– adieraziko du, ebazpen bidez, dirulaguntza eskuratzeko eskubidea erabat edo zati batean galdu duela, eta, hala badagokio, aginduko du Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzul diezazkiola jasotako zenbatekoak, osorik edo zati batean, gauzapen-mailarekiko proportzioan, bai eta berandutze-interesak ere, hala baitiote Euskal Herriko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak, eta, diru-itzulketa partzialari dagokionez,

38/2003 Legearen 37. artikuluan zehazten denaren arabera, eta, itzulketa partzialaren kasuan, 38/2003 Legearen aipatu 37. artikuluan ezarritakoaren arabera. Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira, legezko ondorioei dagokienez.

b) Ez-betetzearen espedientea EAeko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez bakarrik izapidetuko da: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>

16. artikulua.– Datu pertsonalak.

Eskatzaileen datu pertsonalak «Merkataritza-arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

Datu pertsonalak honako arau hauen arabera tratatuko dira: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa; 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babes-teari buruzkoa.

2020ko uztailaren 3a, ostirala

II. ERANSKINA

SALTEGIAK MODERNIZATZEKO DIRULAGUNTZAK
(MEC 2020)
(Erref: 1010107)

ESKABIDE-INPRIMAKIA

ESKATZAILEA

 Titularra Ordezkarria

OINARRIZKO DATUAK

Instrukzio-organoari zuzendua: MERKATARITZA ZUZENDARITZA

Identitate datuak

Titularra

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Pertsona juridikoa bada:

Erakundearen izena:

Pertsona fisikoa bada::

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena

Sexua:



Gizonezkoa



Emakumezkoa

2020ko uztailaren 3a, ostirala

Ordezkaria

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Izena:

Lehen abizena

Bigarren abizena:

Sexua: Gizonezkoa Emakumezkoa

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde historikotan dauden

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak zer lurralde historikotan dauden Araba / Bizkaia / Gipuzkoa / Nafarroa / Estatuaren Administrazioa / Bestelakoak

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala:

Elektronikoa: «Nire kudeaketak» ataleko komunikazioen eta jakinarazpenen erretilura bidaltzen dira.

Sartzeko, identifikazio-modu elektronikoa bat behar da.

10 egun naturaleko epean ez bazara sartzen jakinarazpen elektronikoa bat ikustera, ulertuko da uko egin diozula: izapidea egintzat emango da eta Administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.

Abisuak jasotzeko datuak:

Erabili nahi duzu alde aurreko abisu-zerbitzua, posta elektronikoa edo SMS bidezkoa?

 Ez: Ez duzu abisurik jasoko jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizunean (posta elektronikoz edo posta arruntez) Bai: Abisu bat jasoko duzu jakinarazpen edo komunikazioen bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Abisuetarako kanala	Posta elektronikoa / Telefono zenbakia
SMS / Posta elektronikoa	

Nahi adina erreplikatu

2020ko uztailaren 3a, ostirala

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza



Euskara



Gaztelania

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa (DBLO).

Eskabide honetako datuak honako ezaugarri hauek dituen fitxategi batean sartuko dira:

Izena: RAT Merkataritza arloko laguntzak eta dirulaguntzak

Helburua: Merkataritza-arloko dirulaguntza eta laguntza publikoak kudeatzea.

Legitimazioa: Interes publikoaren mesedetan edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egindako misiorako beharrezko tratamendua da. 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa. Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartua. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Hartzaileak: ez da daturik lagako, legezko betebeharririk egon ezean.

Titularra: Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren Merkataritza Zuzendaritza.

Eskubidea duzu zure datuetarako irispidea izateko, datu horiek zuzentzeko eta ezabatzeko edo datuen tratamendua mugatu edo haren aurka egiteko. Datuetara irispidea izateko eta datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea, datuen eramangarritasunaren gaineko eskubidea eta datuen tratamendua mugatzeko eta tratamenduari aurka egiteko eskubidea egikaritu ahal izango dituzu, eta, horretarako, jardueraren titularrak honako hauekin jarri daiteke harremanetan:

- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritza dico@euskadi.eus posta elektronikoa

- Eusko Jaurlaritzako Datuak Babesteko ordezkaria: dpd-dbo@euskadi.eus posta elektronikoa.

Era berean, posta arruntez ere jar zaitezke harremanetan: Donostia kalea, 1, PK. 01010, Vitoria-Gasteiz. Idazkiarekin edo mezuarekin batera NANaren kopia bat erantsi behar da, edo, bestela, nortasuna egiaztatzen duen antzeko agiriarena.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek xedatutakoa betez. Datuak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoa.

DATU OSAGARRIAK

Eskatzailearen identifikazioa

Enpresaren datuak

EJZ printzipala (4 digitu)

EJZean alta emandako eguna

a) Enpresari buruzko informazioa:

b) Saltegiari buruzko informazioa:

Gizonezkoen kide-kopurua:

Emakumezkoen kide-kopurua:

Web-orria

Ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila

Ondasun-erkidegoa ala sozietate zibila da? Bai Ez

Ondasun-erkidegoaren edo sozietate zibilaren parte-hartzaileak

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: Gizonezkoa Emakumezkoa

Parte-hartzearen portzentajea:

Nahi adina errepikatu.

Legezko ordezkaria:

Identifikazio-agiria:

Zenbakia:

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Sexua: Gizonezkoa Emakumezkoa

Nahi adina errepikatu.

PROIEKTUAREN DATUAK

Egindako inbertsioa

Salgaien baskula elektronikoak, ekipamendu informatikoak, horietarako aplikazioak eta osagarriak, betiere merkaturatze-prozesuetan txertatuta badaude edota enpresaren kudeaketarako badira.

Fakturak

Data	Zenbakia	Deskribapena	Hornitzailea	Zenbatekoa BEZik gabe	Ordaindua B / E	Ordainketa data

[PDF-a erantsi](#)

Pdf bakarra erantsi, non fakturak eta ordainketa-agiriak eskaneatuta eta ordenatuta jasoko baitira.

Lokala, altzariak eta ekipamendua eraberritu eta modernizatzea

Fakturak

Data	Zenbakia	Deskribapena	Hornitzailea	Zenbatekoa BEZik gabe	Ordaindua B / E	Ordainketa data

[PDF-a erantsi](#)

Pdf bakarra erantsi, non fakturak eta ordainketa-agiriak eskaneatuta eta ordenatuta jasoko baitira.

COVID-19ak eragindako alarma-egoera dela-eta, merkataritza-jarduera baldintza higieniko-sanitario egokietan garatzeko erositako aktibo finkoetan egindako inbertsioak

Fakturak

Data	Zenbakia	Deskribapena	Hornitzailea	Zenbatekoa BEZik gabe	Ordaindua B / E	Ordainketa data

[PDF-a erantsi](#)

Pdf bakarra erantsi, non fakturak eta ordainketa-agiriak eskaneatuta eta ordenatuta jasoko baitira.

2020ko uztailaren 3a, ostirala

Egindako inbertsioa azaltzeko memoria.

Egindako inbertsioaren azalpen-memoriaren deskribapen laburra.

Inbertsioaren kokapena

Saltegiaren izena

Inbertsioaren kokapena eta titularraren helbidea desberdinak al dira? Bai Ez

Posta-kodea	Probintzia:	
Udalerría:	Herría:	
Helbidea:	Zk.	Eskailera:
Solairua	Letra	

Instrukzio-organoak ofizioz egindako egiaztapena

Aplikagarri den araudiaren arabera, prozedura honen instrukzio-organoak honako datu hauek egiaztatuko ditu eskumena duen administrazioan:

- Zerga eta Segurantzza Sozialeko zorrak kitatuta dituela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- Identitate-datuak (Poliziaren Zuzendaritza Nagusia)
- BAIMENA EMATEN DIOT prozedura honen instrukzio-organoari egiaztapena ofizioz egin dezan.

Eskabidearekin aurrera egin ahal izateko, nahitaezkoa da baimen hau

ERANTZUNKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

Laguntzaren pertsona edo erakunde onuraduna izateari dagokionez:

- Pertsona edo erakundea ez dagoela Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan aipatzen dituen gainerako egoeretan (onuradun izatea eragozten duten egoerak).
- Enpresa txiki edo ertaintzat (ETE) jotzeko behar diren baldintzak betetzen dituela, hau da:
- 250 pertsonari baino gutxiagori lana ematea eta aurreko ekitaldiko abenduaren 31n gehienez ere 50 milioi euroko urteko negozio-bolumena edukitzea, edo, gehienez ere, 43 milioi euroko urteko balantze orokorra edukitzea.
 - 250 langile edo gehiago, 50 milioi eurotik gorako negozio-bolumena eta 43 milioi euro baino gehiagoko balantze orokorra duen enpresa batek haren kapitalaren % 25 edo gehiagoko partaidetza ez izatea.
- Ez dituela armak ekoizten, merkaturatzen edo finantzatzen, Euskal Autonomia Erkidegoaren Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasun Gutunari buruzko abenduaren 28ko 14/2007 Legeak xedatutakoa betez.
- Kontsumobideko Arbitraje Sistemari atxikita dagoela.
- Ondoren zehazten diren langileak lan-lotura dutela dirulaguntza eskatzen duen saltegiarekin (eskatzailea salbuetsita).

NAN	Izen-abizenak	Titulazioa/ Ziurtagiria	Kontratu mugagabea

Nahi adina errepikatu

Zehapenei dagokienez:

- Ez daukala dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen penal edo administratibo irmorik ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.
- Ez daukala inolako itzultze- edo zehatze-prozedurarik abian Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko dirulaguntzen esparruan.
- Martxan dituela honako itzulketa- edo zigor-prozedurak eta Merkataritza Zuzendaritzari emango diola horien ebazpenaren berri.

Prozedura:

Hasiera-data	Izapidetzen duen saila	Espediente-zenbakia

Nahi adina errepikatu

2020ko uztailaren 3a, ostirala

Bestelako laguntzei dagokienez:

Ez duela eskabiderik aurkeztu eta/edo laguntzarik lortu inbertsio-proiektu honetarako erakunde publiko zein pribatuetatik gaur arte (bete ezean, ez dela beste laguntzarik eskatu ulertuko da).

Laguntza-eskabide honetaz gain, proiektu honetarako eskabidea aurkeztu duela eta/edo laguntza eskuratu duela erakunde publiko edo pribatu hauetan, gaurko egunera arte:

Bestelako laguntzak:

Eskabide-urtea	Erakundea	Programa	Laguntza-mota	Jarduketa	Eskatutako laguntzaren zenbatekoa	Emandako laguntzaren zenbatekoa

Nahi adina errepikatu

Azken 3 urteetan Europako Erkidegoko zuzentzauek (2) ezarritako minimis arauari (1) lotutako laguntza edo dirulaguntzarik ez duela jaso.

Azken 3 urteetan, aurtengo urtea barne hartuta, Europako Erkidegoko zuzentzauek (2) ezarritako minimis arauari (1) lotutako laguntza edo dirulaguntza hauek jaso dituela:

Bestelako laguntzak

Eskabide-urtea	Erakundea	Programa	Laguntza-mota	Jarduketa	Eskatutako laguntzaren zenbatekoa	Emandako laguntzaren zenbatekoa

Nahi adina errepikatu

(1) Minimis arauak ezartzen duenarekin bat etorriaz, minimis kontzeptupean enpresa batek gehienez ere 200.000 euro jaso ditzake 3 urtean.

(2) Enpresa Txiki eta Ertainek soilik bete behar dute

Halaber, konpromisoa hartzen du erakunde publiko edo pribatuetan proiektu honetarako egiten edo lortzen dituen laguntza-eskaera guztien berri emateko.

Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez:

- Ez dagoela zigortuta dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradun izateko debekuarekin, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/ 2005 Legearen 24.2 artikulua araber.
- Betetzen duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa.
- Konpromisoa hartzen duela Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 2.3 artikulua administrazioarekin laguntzak kontratatzen, hitzartzen edo handik laguntzak jasotzen dituzten erakundeei ezarritako betebeharrak bere gain hartzeko. Hauek dira betebeharrak horiek: tratu-berdintasunaren, aukera-berdintasunaren eta langileen aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetuaren printzipioak betez jardutea; estatistika eta azterketak egokitzea; edozein motatako hizkuntzaren erabilera ez-sexista egitea euskarri guztietan, eta zuzendaritza-organoean eta kide anitzeko organoean gaitasun, prestakuntza eta ahalmen egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatu edukitzea.
- Erakunde kolaboratzaile gisa ageri dela Emakundeko gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasunerako alorrean.

Eskabideko datuei dagokienez:

- Indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak betetzen ditu.
- Egiazkoak eta osoak dira eskabide honetako datu guztiak, baita aurkezten ditudan dokumentu guztiak ere; hala, dagokidan erantzukizuna neure gain hartzen dut (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioaren bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Datu pertsonalen babesa (DBLO)

Eskabide honetako datuak honako ezaugarriak dituen fitxategi batera pasatuko dira:

Izena: RAT Merkataritza-arloko laguntzak eta dirulaguntzak.

Helburua: Merkataritza-arloko laguntzak eta dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea.

Legitimazioa: Interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak erabili bitartean eginkizun bat betetzeko behar den tratamendua 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra. Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua. 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura. Erkidearena

Hartzaileak: Ez da daturik emango, lege ezarritako betebeharra dagoenean izan ezik.

Titularra: Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritza.

Eskubidea duzu zure datuetarako irispidea izateko, datu horiek zuzentzeko eta ezabatzeko edo datuen tratamendua mugatu edo haren aurka egiteko. Datuetara irispidea izateko eta datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea, datuen eramangarritasunaren gaineko eskubidea eta datuen tratamendua mugatzeko eta tratamenduari aurka egiteko eskubidea egikaritu ahal izango dituzu, eta, horretarako, jardueraren titularrak honako hauekin jarri daiteke harremanetan:

- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Merkataritza Zuzendaritza dico@euskadi.eus posta elektronikoa

- Eusko Jaurlaritzako Datuak Babesteko ordezkaria: dpd-dbo@euskadi.eus posta elektronikoa.

Era berean, posta arruntez ere jar zaitezke harremanetan: Donostia kalea, 1, PK. 01010, Vitoria-Gasteiz. Idazkiarekin edo mezuarekin batera NANaren kopia bat erantsi behar da, edo, bestela, nortasuna egiaztatzen duen antzeko agiriarena.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrek xedatutakoa betez. Datuak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko Lege Organikoa.

2020ko uztailaren 3a, ostirala

III. ERANSKINA

LANBIDE-JARDUERAREN LEHEN EKITALDIETAN ATXIKIPENEN TASA MURRIZTUA
APLIKATZEKO ESKABIDEA

..... jaunak/andreak (NAN-zenbakia:
.....; helbidea: kalea zk solairua, PK
.....).

Honen bidez

ADIERAZTEN DUT:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren (PFEZ) araudiak xedatutakoari jarraikiz, non hau aurreikusten baita:

«Nolanahi ere (...), lanbide-jarduerari ekin dioten zergadunen kasuan, atxikipen-tasa %7 izango da jarduera hasi den zergaldian eta hurrengo bietan, baldin eta aurreko urtean beste lanbide-jarduerarik egin ez badute.

Honen aurreko lerroaldean ezarri den atxikipen-tasa aplikatzeko, inguruabar hori gertatu dela jakinarazi behar diote zergadunek etekinen ordaintzaileari, eta ordaintzaileak era egokian sinatuta egongo den jakinarazpena gorde beharko du».

Beraz, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan (EJZ) alta eman nuenez aurreko 201....urteko(a)ren(e)an, orduan hasi bainuen nire lanbide-jarduera, idazki honen bidez jakinarazten dut % 7,00ko atxikipen-tasaren aplikazioa 20.....ko nire lanbide-etekinei.

Izpta.:.....